

Uztaila / Julio / Juillet / Abuztua / Agosto / Août 2024



📍
DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
VITORIA-GASTEIZ
IRUÑEA / PAMPLONA
DONIBANE LOHIZUNE /
SAINT-JEAN-DE-LUZ

+ Info
www.filmoteca.eus



Antolatzailea | Organizador | Organisateur

Kolaboratzaileak | Colaboradores | Collaborateurs

F EUSKADIKO FILMATEGIA
FILMOTECAS VASCA
CINÉMATHEQUE BASQUE

59 DONOSTIAKO
JAZZALDIA

Julia
vitoria
gasteiz



SSIFF Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival

© They Shot The Piano Player, AIE, Fernando Trueta Producciones Cinematográficas, SA
Julian, Pinar & Ferrnán, S.L., Los Films d'Océ Méditerranée, Submarine Sublime, Animancora
Com, Lubi, Producciones Toralejo, S.C.

PROTUBERANTZIATIK ESTILORA

Euskaraz hitzez hitz emanda, *bossa novak* (frantsesezko *bosse*, “protuberantzia”) “protuberantzia berria” edo horrelako zerbait esan nahiko luke. “Irteten den zer hori”, ordea, estiloarekin parekatu zen azkenean, eta Brasilgo herri-musikaren “estilo berri” gisa ezarri zen. Baina, jatorrizko esanahira bueltatzen bagara, sanba ikusgarri eta dinamikoari irteten zaion protuberantzia bat da *bossa nova*. Zehazki esateko, jazz-ukitua duen protuberantzia. Sanbaren erritmo afroek erabateko naturaltasunez bereganatu zituzten kontinentearen iparraldetik zetozen disonantziak. Halaxe sortu zen *bossa nova* izeneko estilo berria, minimalistagoa, ez sanba bezain joria eta hura baino disonanteagoa, baina limurtzaila inondik ere. Zerbaitegatik deitu zioten *Desafinado* estilo berri hartan nazioartean arrakasta lortu zuen lehenbiziko kantuetako bati, zeina Antônio Carlos Jobim-ek konposatu baitzuen 1959an. “Desafinatu” bai, baina arimaz, erritmoz eta pasioz bete.

Ziklo honen bitartez, zertzelada labur batzuk eman nahi dira Brasilgo *bossa novaren* inguruabarrei eta protagonistei buruz. Genero musikal horren erreposao egiteko aukeratu dira, batetik, bi dokumental -emakumeak dituzte protagonista ia erabat-, bigarrenik, *bossa nova* zinemari sartu zuen filma, eta, azkenik, pianista brasildar bati buruz berriki eginiko animazio-lan bat. *Miúcha. A voz da bossa nova* dokumentalak Heloísa María Buarque de Holanda du protagonista. Heloísa da Miúcha edo “Txikitxoa”, Brasilgo musikaren ahotsik garrantzitsuenetako bat. Dokumental horretan, mugimendu horretako protagonista asko eta asko ageri dira: bere senar João Gilberto eta neba Chico Buarque de Holanda, Vinícius de Moraes, Tom Jobim... Azken hori da, hain justu, *Elis & Tom. Só tinha de ser com você* bigarren dokumentaleko protagonista-kidea, Elis Reginarekin batera -*bossa novaren* beste ahots funtsezkoetako bat-. Genero horretako diskorik garrantzitsuenetako baten grabaketa da omenaldi eder horren ardatza. *Águas de março* abestiaren grabaketa antologikoaren entseguekin hasten da, zeina *bossa nova* generoko kantu ezagunenetako bat baita, *Garota de Ipanema*rekin batera.

Bossa novako konposizioak *Orfeu negro* -*Orfeo beltza*- filmaren soinu-bandan sartu ziren lehenbizikoz modu kontzientean. Rio de Janeiroko inauterietan dago girotuta kontakizuna, eta Orfeo eta Euridizeren mito greziar hain bereziaren translazio bat da. Baina Orfeo, maitearen bila Hadesera jaitsi ordez, *candomblé*aren mundu ilunean barneratuko da, lemanjá eta gainerako *orixá* edo dibinitateen ludian, amildegira eginiko bidaia batean. Pelikularen gidoia Vinícius de Moraes-ek berak idatzia da. Aldi berean, soinu-bandako kantu mitikoak entzun ditzakegu, *Manhã de Carnaval* edo *A felicidade*, kasu. Zirkulua itxeko, Fernando Truebak eta Javier Mariscalek *Chico y Rita* bikainaren ondoren elkarrekin zuzendutako azken ekoizpena ikusi ahal izango dugu: *Dispararon al pianista*, Tenório Júniorri buruzko animaziozko dokudrama. Júnior pianista brasildar bikain bat izan zen; Videlaren poliziak bahitu eta ESMA zorigaiztokoan giltzapetu ondoren, hil egin zuten Buenos Airesen, 1976an. Vinícius de Moraes, João Gilberto, Caetano Veloso, Gilberto Gil eta beste egile batzuen doinuek edertzen dute film boteretsu horren kontakizun gogorra.

Paseo bat *bossa novaren* historian barrena. Ia obra handi guztiak bezalaxe, oso sustrai lokalak dituen musika unibertsal batez jabetzeko eta gozatzeko aukera.

IKURRAK / SÍMBOLOS / SYMBOLES



Zuzendaritza
Dirección
Réalisation



Urtea
Año
Année



Herrialdea
País
Pays d'origine



Ekoizpena
Producción
Production



Gidoia
Guión
Scénario

DE LA PROTUBERANCIA AL ESTILO

La traducción literal de “bossa nova” (del francés *bosse*, “protuberancia”) sería algo así como “nueva protuberancia”, aunque al final ese “algo que sobresale” terminó asimilándose al concepto de “estilo”, para establecerse como un “estilo nuevo” de la música popular brasileña. Pero si volvemos a su significado originario, la *bossa nova* efectivamente es una protuberancia que le sale a la exuberante y dinámica samba. Exactamente, una protuberancia jazzística. Los ritmos afros de la samba asimilaron con total naturalidad esas disonancias que venían desde el norte del continente para dar lugar a un estilo nuevo, más minimalista, menos exuberante y más disonante, aunque siempre envolvente, que terminó siendo la *bossa nova*. No en vano, uno de los primeros éxitos internacionales de este nuevo estilo llevaba por título *Desafinado*, compuesto por Antônio Carlos Jobim en 1959. “Desafinado”, pero con alma, ritmo y pasión.

Este ciclo pretende trazar unas breves pinceladas sobre algunos de los aspectos y los protagonistas de la *bossa nova* brasileña. Dos documentales protagonizados casi en exclusiva por mujeres, la película fundacional de la *bossa nova* y una reciente animación sobre un pianista brasileño componen este somero repaso sobre este género musical. Heloísa María Buarque de Hollanda es la protagonista del documental *Miúcha. A voz da bossa nova*. Heloísa es Miúcha, “Menudita”, una de las voces más importantes de la música brasileña. Por el documental desfilan buena parte de los protagonistas del movimiento: João Gilberto (su marido), su hermano Chico Buarque de Hollanda, Vinicius de Moraes, Tom Jobim... Este último es coprotagonista del otro documental, *Elis & Tom. Só tinha de ser com você*, junto con otra de las voces fundamentales de la *bossa nova*: Elis Regina. La grabación de uno de los discos más importantes del género es el eje de este hermoso tributo, que comienza con el ensayo de la antológica grabación de *Águas de março*, uno de los más famosos temas de *bossa nova*, junto a *Garota de Ipanema*.

Orfeu negro -Orfeo beltza- es la primera película que incluyó en su banda sonora de forma consciente composiciones de *bossa nova*. Se desarrolla durante el carnaval de Río de Janeiro y es una traslación a ese ámbito tan peculiar del mito griego de Orfeo y Eurídice. Pero en lugar del descenso al Hades en busca de su amada, Orfeo desciende al oscuro mundo del *candomblé* y la diosa Yemayá y los *orixá*, en un viaje al abismo cuyo guion fue escrito por el mismísimo Vinicius de Moraes. Mientras, en la banda sonora podemos disfrutar de temas míticos como *Manha de Carnaval* o *A felicidade*. Y cerramos el círculo con la última producción dirigida a cuatro manos por Fernando Trueba y Javier Mariscal, después de la estupenda *Chico y Rita*. Se trata de *Dispararon al pianista*, un docudrama de animación sobre Tenório Júnior, un excelente pianista brasileño que fue secuestrado, encerrado en la siniestra ESMA y después asesinado por la policía de Videla en el Buenos Aires de 1976. La música de Vinicius de Moraes, João Gilberto, Caetano Veloso, Gilberto Gil y otros adereza el tenso metraje de este poderoso film.

Un paseo por la historia de la *bossa nova*. Una oportunidad de apreciar y disfrutar una música universal con unas raíces muy locales. Como casi todas las grandes obras.



Muntaketa
Montaje
Montage



Argazkia
Fotografía
Photo



Musika
Música
Musique



Aktoreak
Intérpretes
Interprètes



Iraupena
Duración
Durée


DE LA PROTUBÉRANCE AU STYLE

La traduction littérale de “bossa nova” (du français *bosse*, “protubérance”) serait quelque chose comme “nouvelle protubérance” bien que ce “quelque chose qui ressort” a finalement été assimilé au concept de “style”; la musique populaire brésilienne serait donc définie comme un “nouveau style”. Mais si nous revenons à son sens original, la *bossa nova* est effectivement une protubérance de la samba exubérante et dynamique. Plus exactement une protubérance issue du jazz. Les rythmes afros de la samba ont assimilé tout naturellement ces dissonances provenant du nord du continent pour faire naître un nouveau style plus minimaliste, moins exubérant et plus dissonant, mais toujours captivant qu’on a fini par appeler la *bossa nova*. Ce n’est pas par hasard que l’un des premiers succès internationaux de ce nouveau style avait pour titre *Desafinado* [*Fausse notes*], composé par Antônio Carlos Jobim en 1959. “Fausse notes”, mais avec une âme, du rythme et de la passion.

L’objectif de ce cycle est d’apporter un éclairage par petites touches de certains des aspects et des grands personnages de la *bossa nova* brésilienne. Deux documentaires où les protagonistes sont pratiquement tous des femmes, le film de fondation de la *bossa nova* et une animation récente au sujet d’un pianiste brésilien composent cette brève rétrospective de ce genre musical. Heloísa Maria Buarque de Hollanda est la protagoniste du documentaire *Miúcha. A voz da bossa nova*. Heloísa est Miúcha, *Petite*, l’une des voix majeures de la musique brésilienne. Le documentaire présente une bonne partie des protagonistes du mouvement: João Gilberto (son mari), son frère Chico Buarque de Hollanda, Vinicius de Moraes, Tom Jobim... Ce dernier étant le co-protagoniste de l’autre documentaire *Elis & Tom. Só tinha de ser com você*, aux côtés d’une autre des grandes voix de la *bossa nova*: Elis Regina. L’enregistrement de l’un des disques les plus importants du genre est au centre de ce magnifique hommage qui commence avec la répétition de l’enregistrement d’anthologie du morceau *Águas de março*, l’une des pièces de *bossa nova* les plus connues, avec *Garota de Ipanema*.

Orfeu negro -Orfeo beltza- est le premier film à inclure consciemment des compositions de *bossa nova* dans sa bande son. Il se déroule pendant le carnaval de Rio de Janeiro et transpose le mythe grec d’Orphée et Euridice. Mais au lieu de la descendre aux Enfers pour retrouver la femme qu’il aime, Orphée descend dans le monde obscur du *candomblé* et la déesse Yemayá et les *orixa* dans un voyage vers l’abîme dont le scénario a été écrit par Vinicius de Moraes même. La bande son nous permet de savourer également des morceaux mythiques comme *Manha de Carnaval* ou *A felicidade*. Et nous refermons la boucle avec la dernière production dirigée à quatre mains par Fernando Trueba et Javier Mariscal, après la merveilleuse *Chico y Rita*. Il s’agit de *Dispararon al pianista*, un drame documentaire d’animation sur Tenório Júnior, un excellent pianiste brésilien qui a été séquestré, enfermé dans la sinistre ESMA puis assassiné par la police de Videla dans le Buenos Aires de 1976. La musique de Vinicius de Moraes, João Gilberto, Caetano Veloso, Gilberto Gil et autres vient adoucir le métrage tendu de ce film puissant.

Une promenade dans l’histoire de la *bossa nova*. Une opportunité d’apprécier et de savourer une musique universelle aux racines très locales. Comme presque toutes les grandes oeuvres.



ELIS & TOM. SÓ TINHA DE SER COM VOCÊ

📅 2024/07/03

📍 ARTIUM MUSEOA
VITORIA-GASTEIZ

🕒 19:00

👤 **Alberto Ibarrondo**
(zuzendaria / director / directeur Jazz Vitoria)

📅 2024/07/05

📍 TABAKALERA
DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN

🕒 19:00

👤 **Miguel Martín**
(zuzendaria / director / directeur Jazzaldia)

📅 2024/07/23

📍 GOLEM YAMAGUCHI
IRUÑEA-PAMPLONA

🕒 20:00

🎧 Roberto de Oliveira,
Jom Tob Azulay

📅 2023

🌐 Brasil / Brasil / Brésil

🏠 Diogo Pires Gonçalves

✍️ Roberto de Oliveira, Nelson Motta

🎧 Fernando Duarte, João Wainer

🎬 João Wainer

🎵 Antônio Carlos Jobim

👤 Elis Regina, Tom Jobim, Paulo
Braga, César Camargo Mariano,
Roberto de Oliveira

⌚ 100'

Hizkuntza / Idioma / Langue

Portuguesa, ingelesa / Português, inglés /
Portugais, anglais

Azpituluak / Subtítulos

Gaztelania / Español

1974an, Los Angelesko disko baten grabazioak *bossa nova* generoko artista handienetako bi elkartu zituen: Elis Regina eta Antônio Carlos Jobim. Elis Reginaren ahots bikain eta moldakorra zen adierazpiderik aproposena Tom Jobim bikainaren konposizioetarako. Diskoari *Elis & Tom* deitu zioten, besterik gabe. Garai hartako grabazioen eta protagonista batzuekin egindako elkarrizketen bidez, une konplexu baina magiko hartara hurbilduko gara.

En 1974 la grabación de un disco en Los Ángeles reunió a dos de los más grandes artistas de la *bossa nova*: Elis Regina y Antônio Carlos Jobim. La excepcional y versátil voz de Elis Regina era el vehículo ideal para las composiciones del genial Tom Jobim. El disco se tituló simplemente *Elis & Tom*. A través de grabaciones de época y entrevistas con algunos de los protagonistas nos acercamos a aquel momento complejo, pero mágico.

En 1974, l'enregistrement d'un disque à Los Angeles réunit deux des plus grands artistes de la *bossa nova*: Elis Regina et Antônio Carlos Jobim. La voix exceptionnelle et versatile d'Elis Regina était le véhicule idéal pour les compositions du génial Tom Jobim. Le disque s'appelait simplement *Elis & Tom*. Grâce à des enregistrements d'époque et à des interviews de certains des protagonistes, nous pouvons nous rapprocher de ce moment complexe et magique à la fois.



ORFEU NEGRO

ORFEO BELTZA

📅 2024/07/11

📍 ARTIUM MUSEOA
VITORIA-GASTEIZ

🕒 19:00

📅 2024/07/12

📍 TABAKALERA
DONOSTIA/
SAN SEBASTIÁN

🕒 19:00

👤 Zigor Etxebeste

📅 2024/07/07 | 2024/08/04

LE SÉLECT
📍 DONIBANE LOHIZUNE/
SAN JUAN DE LUZ

🕒 19:00

*Sous-titres: français

📅 2024/07/30

📍 GOLEM YAMAGUCHI
IRUÑEA-PAMPLONA

🕒 20:00

👤	Marcel Camus
📅	1959
🌐	Frantzia, Italia, Brasil / Francia, Italia, Brasil / France, Italie, Brésil
🏠	Sacha Gordine
🖋️	Jacques Viot, Vinicius de Moraes
🎭	Jean Bourgoïn
🎬	André Feix
🎵	Antônio Carlos Jobim, Luiz Bonfá
👤	Breno Mello, Marpessa Dawn, Lourdes de Oliveira, Léa García, Adhemar Ferreira da Silva
🕒	103'


Greziar mitoa, Rio de Janeiroko inauterietan girotuta. Eurídice ederra, favela batean bizi den lehengusina batek gonbidaturik, Riora iritsi da inauteri ospetsuaren aurreko egunetan. Eurídice tranbia hartuta ailegatuko da lehengusinaren etxera, eta, bidean, tranbia-gidaria -Orfeu izeneko gitarra-jotzaile bat- liluraturik geratuko da neska gaztearekin. Alabaina, Orfeuren neskalagun jeloskoraren susmoek zaildu egingo dute harreman hori.

Ambientación del mito griego en el carnaval de Río de Janeiro. La bella Eurídice visita la ciudad en vísperas de su famoso carnaval, invitada por una prima que vive en una favela. Hasta allí llega en un tranvía cuyo conductor, un guitarrista llamado Orfeo, queda prendado de ella. Sin embargo, su relación se verá dificultada por las sospechas de su celosa novia.

Mise en ambiance du mythe grec au Carnaval de Río de Janeiro. La belle Euridice visite la ville à la veille de son célèbre carnaval invitée par une cousine qui habite une favela. Elle arrive dans la ville à bord d'un tramway dont le conducteur, un guitariste appelé Orphée tombe sous son charme. Leur relation sera néanmoins gênée par les soupçons de sa fiancée jalouse.

Hizkuntza / Idioma / Langue
Portugesa / Português / Portugais

Azpitulua / Subtítulos
Euskara / Euskera



MIÚCHA. A VOZ DA BOSSA NOVA

📅 2024/07/18

📍 ARTIUM MUSEOA
VITORIA-GASTEIZ

🕒 19:00

📅 2024/07/19

📍 TABAKALERA
DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN

🕒 19:00

📅 2024/08/06

📍 GOLEM YAMAGUCHI
IRUÑEA-PAMPLONA

🕒 20:00

🎭 Liliane Mutti, Daniel Zarvos

📅 2022

🌐 Brasil, Frantzia, AEB / Brasil,
Francia, EE UU / Brésil, France,
Etats-Unis

🏠 Liliane Mutti

🎭 Marta Sánchez, Daniel Zarvos

🎭 Daniel Zarvos, Chico Buarque
de Holanda, Luiz Bonfá

🎬 Isabel Castro, Daniela Ramalho

🎵 Rubén Jacobina

🎭 Miúcha, Chico Buarque, Sílvia
Buarque, João Gilberto, Vinicius
de Moraes, Stan Getz, António
Carlos Jobim

🕒 98'

Hizkuntza / Idioma / Langue
Portugesa / Português / Portugais

Azpituluaak / Subtítulos
Gaztelania / Español

Miúcha (“Txikitxoá”) zen Heloísa Buarque de Hollandaren izen artistikoa, eta *bossa nova* generoko ahots bikainenetako bat da. Miúcha Chico Buarque de Hollandaren arreba eta João Gilbertoren emaztea izan zen, eta berak eman zien ahotsa garaiko sortzaile brasildar handien konposizioei. Sortzaile horien artean, nabarmentzekoak dira bere neba eta eta senarra, Antônio Carlos Jobim (bere bikote artistikorik ohikoena), Vinicius de Moraes edo Stan Getz saxofoi-jotzaile iparramerikarra, artista brasildar askoren ohiko kolaboratzailea. Ezinbesteko erreferentzia, *bossa novaren* historia ulertzeko.

Miúcha (“Menudita”) era el nombre artístico de Heloísa Buarque de Holanda, una de las más grandes voces de la *bossa nova*. Hermana de Chico Buarque de Holanda y esposa de João Gilberto, Miúcha dio voz a las composiciones de los grandes creadores brasileños de la época, desde su propio hermano o su marido hasta Antônio Carlos Jobim (su pareja artística más habitual), pasando por Vinicius de Moraes o el saxofonista norteamericano Stan Getz, colaborador habitual de muchos artistas brasileños. Una referencia imprescindible para comprender la historia de la *bossa nova*.

Miúcha (“Petite”) était le nom artistique d’Heloísa Buarque de Holanda, l’une des plus grandes voix de la *bossa nova*. Soeur de Chico Buarque de Holanda et épouse de João Gilberto, Miúcha a interprété les compositions des grands créateurs brésiliens de l’époque à commencer par son propre frère ou son mari, jusqu’à Antônio Carlos Jobim (son compagnon artistique le plus habituel) en passant par Vinicius de Moraes ou le saxophoniste d’Amérique du nord Stan Getz, collaborateur habituel de nombreux artistes brésiliens. Une référence indispensable pour comprendre l’histoire de la *bossa nova*.



DISPARARON AL PIANISTA

📅 2024/07/25

📍 ARTIUM MUSEOA
VITORIA-GASTEIZ

🕒 19:00

📅 2024/07/26

📍 TABAKALERA
DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN

🕒 19:00

👤 Fernando Trueba

📅 2024/07/21 | 2024/08/18

📍 LE SÉLECT
DONIBANE LOHIZUNE/
SAN JUAN DE LUZ

🕒 19:00

*Sous-titres: français

📅 2024/08/13

📍 GOLEM YAMAGUCHI
IRUÑEA-PAMPLONA

🕒 20:00

👤 Fernando Trueba, Javier Mariscal

📅 2023

🌐 España, Frantzia, Portugal,
Herbeherak, Peru / España,
Francia, Portugal, Países Bajos,
Perú / Espagne, France, Portugal,
Pays-Bas, Pérou

🏠 Cristina Huete

👤 Fernando Trueba, Javier Mariscal

🎬 Arnau Quiles

🎵 João Gilberto, Caetano Veloso,
Gilberto Gil, Vinicius de Moraes,
Paulo Moura, Russian Red

⌚ 103'

Hizkuntza / Idioma / Langue

Ingelesa, gaztelania, portugesa / Inglés,
español, portugués / Anglais, espagnol,
portugais

Azpitulua / Subtítulos

Gaztelania / Español

1976ko Buenos Aires tetrikoan, pianista brasildar bat desagertu zen, arrastorik utzi gabe. Tenório Júnior zen, Vinicius de Moraes eta beste zenbait musikari ospetsuren ohiko kolaboratzailea. Handik urte batzuetara, musika-kazetari batek ikerketa bat abiarazi zuen, zer gertatu ote zitzaion jakiteko. Ikerketek zorigaiztoko ESMA edo Armadaren Goi Ikastegi Mekanikora eraman zuten, zeina Videlaren diktaturako atxilotze-zentrorik izugarrietako bat izan baitzen. Hantxe berretsi zuten Tenório Juniorren zorigaiztoko patua.

En el tétrico Buenos Aires de 1976, un pianista brasileño desapareció sin dejar rastro. Se trataba de Tenório Júnior, habitual colaborador de músicos tan famosos como Vinicius de Moraes. Años más tarde, un periodista musical comienza una investigación para saber qué sucedió con él. Sus investigaciones le llevarán a la malhadada ESMA (Escuela Superior de Mecánica de la Armada), uno de los más terribles centros de detención de la dictadura de Videla y a corroborar el triste destino de Tenório Júnior.


Dans le Buenos Aires angoissant de 1976, un pianiste brésilien disparaît sans laisser de trace. Il s'agissait de Tenório Júnior, collaborateur habituel de musiciens de la taille de Vinicius de Moraes. Des années plus tard, un journaliste musical s'embarque dans une enquête pour découvrir ce qui s'est réellement passé. Ses recherches l'ont conduit à la malheureuse ESMA (École supérieure mécanique de l'armée), l'un des centres de détention les plus terribles de la dictature de Videla et à finalement prouver le destin fatal de Tenório Júnior.

AURKEZPENA / PRESENTACIÓN / PRÉSENTATION

2024/07/26 · 19:00 · Tabakalera (Donostia)

Fernando Truebak musikarekiko eta, bereziki, jazzarekiko grina handia erakutsi du beti bere ibilbide zinematografikoan: izan ere, bere film batzuetako protagonista da jazzak (*Calle 54, El milagro de Candeal, Chico y Rita, Dispararon al pianista*), disko gogoangarrien produktore izan da (Bebo Valdés, Niño Josele) eta, Nat Chediak-ekin batera, jazz latinoari buruzko programa bateko aurkezle ere izan zen Radio 3en. Jazzak eta zinemak bizitza paraleloak izan dituzte. Jazzak eta Truebak ere bai.


Fernando Trueba es uno de los directores de cine que mayor pasión han demostrado en su carrera por la música y, concretamente, por el jazz: es protagonista de algunas de sus películas (*Calle 54, El milagro de Candeal, Chico y Rita, Dispararon al pianista*), ha sido productor de discos memorables (Bebo Valdés, Niño Josele) y fue junto a Nat Chediak presentador de



un programa sobre jazz latino en Radio 3. Jazz y cine han llevado vidas paralelas. Jazz y Trueba también.

Fernando Trueba est l'un des réalisateurs qui a le plus affiché sa passion pour la musique dans sa carrière, et en particulier pour le jazz, qui est au cœur de certains de ses films (*Calle 54, Le Miracle de Candeal, Chico & Rita, They Shot The Piano Player*). Il a produit des albums mémorables (Bebo Valdés, Niño Josele) et présenté, avec Nat Chediak, une émission consacrée au jazz latin sur Radio 3. Jazz et cinéma ont mené des vies parallèles. Jazz et Trueba aussi.

ARGITALPENAK / PUBLICACIONES / PUBLICATIONS



Laster / Próximamente / Prochainement

Felipe Cabrerizo

Italia violenta. El cine policiaco italiano Violent Italy. Italian Crime Films



Castellano / Inglés
Spanish / English

Auditoriuma Auditorio Auditorium	Eguna Día Jour	Ordua Hora Heure	Bertsioa Versión Version	Azpítitulua Subtítulos Sous-titres	Aurkezpena Presentación Présentation
--	----------------------	------------------------	--------------------------------	--	--

ELIS & TOM. SÓ TINHA DE SER COM VOCÊ

(Roberto de Oliveira, Jom Tob Azulay, 2023)

VITORIA-GASTEIZ / ARTIUM MUSEOA	2024/07/03	19:00	Portugesa, ingelesa Portugués, inglés Portugais, anglais	Gaztelania Castellano	Alberto Ibarondo
DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN / TABAKALERA	2024/07/05				Miguel Martín
IRUÑEA/PAMPLONA / GOLEM YAMAGUCHI	2024/07/23	20:00			

ORFEU NEGRO -ORFEO BELTZA-

(Marcel Camus, 1959)

VITORIA-GASTEIZ / ARTIUM MUSEOA	2024/07/11	19:00	Portugesa Portugués Portugais	Euskara Euskera	
DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN / TABAKALERA	2024/07/12				Zigor Etxebeste
DONIBANE LOHIZUNE/ SAN JUAN DE LUZ / Sous-titres: français LE SÉLECT	2024/07/07 2024/08/04	19:00			
IRUÑEA/PAMPLONA / GOLEM YAMAGUCHI	2024/07/30	20:00			

MIÚCHA. A VOZ DA BOSSA NOVA

(Liliane Mutti, Daniel Zarvos, 2022)

VITORIA-GASTEIZ / ARTIUM MUSEOA	2024/07/18	19:00	Portugesa Portugués Portugais	Gaztelania Castellano	
DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN / TABAKALERA	2024/07/19				
IRUÑEA/PAMPLONA / GOLEM YAMAGUCHI	2024/08/06	20:00			

DISPARARON AL PIANISTA

THEY SHOT THE PIANO PLAYER

(Fernando Trueba, Javier Mariscal, 2023)

VITORIA-GASTEIZ / ARTIUM MUSEOA	2024/07/25	19:00	Ingelesa, gaztelania, portugesa Inglés, español, portugués	Gaztelania Castellano	
DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN / TABAKALERA	2024/07/26				Fernando Trueba
DONIBANE LOHIZUNE/ SAN JUAN DE LUZ / Sous-titres: français LE SÉLECT	2024/07/21 2024/08/18	19:00	Anglais, espagnole, portugais		
IRUÑEA/PAMPLONA / GOLEM YAMAGUCHI	2024/08/13	20:00			



SSIFF Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival

EUSKADIKO FILMATEGIA
FILMOTECA VASCA
CINÉMATHEQUE BASQUE

Klasikoak

2024

Iraila / Septiembre / September

sansebastianfestival.com



SSIFF 2024
Iraila
Septiembre
20/23 **72**



EUSKAL EMAKUME ZINEMAGILEAK IV CINEASTAS VASCAS IV

URRIA - ABENDUA / OCTUBRE - DICIEMBRE
2024

Antolatzailea | Organizador

Kolaboratzaileak | Colaboradores

Informazio gehiago | Más información

 **EUSKADIKO FILMATEGIA**
FILMOTEGA VASCA
CINÉMATHEQUE BASQUE

**ARTIUM
MUSEOA**
MUSEO DE ARTE Y CINE DE EUSKADI

TABAKALERA


www.filmoteka.eus